


LURRERATUZ



Desio ahantziak

Laguntzailea



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia

nahia
Perspectiva de género y de diversidad sexual

*Taldea hauek osatzen dugu: **ALDARTE - Gay, Lesbiana eta Transexualen arretarako Zentroa, Errefuxiatuen laguntzarako Euskadiko Batzordea (CEAR-Euskadi) eta INCYDE, Iniciativas de Cooperación y Desarrollo.***

Lankidetzarako, Herritartasun globalaren aldeko Heziketarako eta etorkin eta errefuxiatuen giza-eskubideak sustatu eta defendatzeko ekintza-lerroak eta estrategiak ikertu, hausnartu eta asmatu nahi ditugu, Generoaren eta Sexuaniztasunaren ikuspegitik.

Egileak: Amparo Villar, Esther Canarias, Fernando Altamira, Inmaculada Mujika eta Raquel Celis

Itzulpena: Bego Montorio

Irudiak: Asier Gallastegi

Maketazioa: Printheus

DATA: 2014ko URRIA

LEGE GORDAILUA: BI-1977-2014



Liburu hau Creative Commons lizentziapean dago

http://es.creativecommons.org/blog/wp-content/uploads/2013/04/by-nc-sa.eu_petit.png


Panapo nia, pana njia

*Desio bat egonez gero,
bide bat ere badago*

Atsotitz swahiliarra

Aurkibidea

1 • Aurkezpena	9
2 • Egitasmoen oinarriak	13
Esparru teorikoa	14
1. Aldez aurretikoa. Sexualitatea: naturak ez du eragin handirik.	14
2. Heteronormatibotasuna: heterosexualitatea, sexualitate aproposa neoliberalismoaren mesederako.	15
3. Bitartasuna: bi gorputz, bi genero, sexualitate bakarra.	16
Jarduerak	19
1. Jarduera. Zer da gizon izatea edo emakume izatea? I. eta II. fitxak	19
2. Jarduera. Nor da Nor? II. eta III. fitxak	22
3. Jarduera. Zer da genero-definizioa? IV. eta V. fitxak	24
3 • Gure lanaren subjektuak	27
Sarrera	28
Tresnak	31
1. Tresna. Subjektuen mapa. Zer irudikatzen duzu?	31
2. Tresna. Venn-en diagrama.	34
3. Tresna. Txingoka, itsu-itsuan	38



1

Aurkezpena

LURRERATUZ genero-ikuspegia eta aniztasun sexualaren ikuspegia Garapenerako Gobernu Kanpoko Erakunde (GGKE) eguneroko lanera hurbiltzeko tresna da, erakunde horiek ikuspegiok kontuan har ditzaten Garapenerako Lankidetz (GL) eta Herritartasun Globalerako Hezkuntza (HGH) garatzerakoan. LURRERATUZ tresna honek bi atal nagusi ditu: oinarriak (gure praktika eta prozesuei arrazoia eta zentzua ematen dieten giltzarri kontzeptualak) eta subjektuak (horiek garatzeko aukeratzen ditugun pertsona eta erakundeak). Lurreratzeari hortik heltzen diogu, aniztasun sexualaren eta generoaren ikuspegia GGKEen errealitatera hurbiltzeko, GL eta HGRako euren jarduneari.

Los Deseos Olvidados¹ (Desio Ahantziak) liburutik sortu da LURRERATUZ. NAHIA taldearen lehen argitalpena den horretan, aipatu ikuspegiei buruzko gure gogoetak plazaratu genituen. Eta bi erronka nagusi (eta beste bi txikiago) agertu zitzaizkigun orduan. Bata zen sexu-generoa paradigma gainditzea (“bi sexu – bi genero” irakurketa klasikoa), eta sexu-nortasun eta sexuzaletasunen irakurketa konplexuagoaren alde egin genuen, bitartasunaren eta heteronormatibotasunaren ondorioak neurtu ahal izateko. Eta beste erronka nagusia zen aurreko hori egitea, baina patriarkatuak emakumeen bizitzan izan dituen eraginak ezkutatu gabe. Batuketa egin, ez kenketa. Nola jarri ikusgai pertsonen errealitateak euren genero-nortasunaren edo lehenetsuen arabera etiketatu gabe? Ez dugu erantzuna. Bidean ari gara.

Los Deseos Olvidados liburuan azaltzen den moduan, genero-teorietatik eta teoria feministetatik edan du NAHIAK, beste pertsona eta erakunde batzuek urtetan garatutako hausnarketa eta ‘liskarretatik’. Borroka feministek patriarkatuaren mekanismoetako asko ulertarazi dizkigute, eta funtsezko giltzarriak eskaini dizkigute gizartea eraldatzeko. Bide horretan ari gara, eta beste eskema zapaltzaile batzuk ere jarri ditugu eszenan, beren burua etengabe elikatuz gure nortasunak, desioak eta aukerak mugatzen dituzten bi eskema zapaltzaile: bitartasuna eta heteronormatibotasuna.

Gure ustez, genero- eta sexu-aniztasunaren ikuspegia geure egitea, horren kontzientzia hartzea eta saio batzuk egitea bide egokiak dira lan esparru dugun mundua eta errealitatea ikusteko modu konplexuagoa lortzeko. Horrez gain, koherentea ez ezik beharrezkoa ere bada giza eskubideen ikuspuntutik jardun ahal izateko eta gizarte kohesionatuago eta integratuago baten eraikuntzan aurrera egiteko.

¹Zenbait egile: *Los deseos olvidados. La perspectiva de género y de diversidad sexual en la Cooperación al Desarrollo, en la Educación para la Ciudadanía global y en la promoción y defensa de los DDHH de las personas migrantes y refugiadas*. Argitaratzailea, Nahia. Bilbo, 2013.

LURRERATUZ lurra hartzeko tresna bat da. Ez dugu edonola lurreratu nahi, ez bada oinak apurka-apurka pausatuz; presarik gabe, baina etenik gabe. Oinarrien atalak esparru teorikoari heltzen dio, eta hiru ariketa azaltzen dira bertan, solasaldirako gogoeta batzuekin batera. Subjektuen atalean, testuinguruan jartzeko atal bat landu da, eta azterketarako hiru tresna proposatzen dira.

Esku artean duzuen dokumentu hau NAHIA osatzen dugun hiru erakundeok prestatu dugu: ALDARTE - Gay, Lesbiana eta Transexualen arretarako Zentroa, Errefuxiatuen laguntzarako Euskadiko Batzordea (CEAR-Euskadi) eta INCYDE, Iniciativas de Cooperación y Desarrollo (Lankidetzarako eta Garapenerako Ekimenak). Baina ez dugu geuk bakarrik landu, Mugarik gabe elkartearekin eta Ingeniería Sin Fronteras-Mugarik Gabeko Ingeniaritza elkartearekin kontrastatu dugu, eta gure hasierako proposamena hobetu ahal izan dugu haien ekarpenei esker. Eskerrik asko guztiei, batez ere beren konfiantza eta inplikazioagatik.

Bidaia hau ez da erraza. Izan ere, bidaia zaila da, eta pertsona eta erakunde bakoitzak toki jakin batetik, toki desberdin batetik ekiten dio. Baina, era beran, bidaia ederra da, erakargarria, eta bidaide onak ditugu.



2

Egitasmoen oinarriak

ESPARRU TEORIKOA

1. Aldez aurretikoa. Sexualitatea: naturak ez du horretan eragin handirik

Sexualitatea gizartean eraikitzen da; horrenbestez :

Fenomeno konplexua da sexualitatea.

1. **Historian zehar eta gizartearen baitan** eraikitzen da: sexualitateari buruzko ikuspegiak (balorazioak, iritziak, aurrejuzguak) aldatu egiten dira garai, kultura eta belaunaldien arabera.
2. **Tradizio eta praktika sozial, erlijioso, moral, ekonomiko, familiar, juridiko eta mediko ugariren elkarrekintzaren emaitza** da. Erabaki politiko eta gizarte eztabaida garrantzitsuei lotuta dago.
3. **Gizarte eta politika harremanek eta erakundeek ez ezik, gure oinarrizko identitateek definitzen dituzten ikuspegi gizartean onartuek ere baldintzatzen dute.**
4. **Sexualitateari buruzko ideiak nolakoak, halakoa gizarte-rolen banaketa:** ar bat da, emagaldu bat da, biziotsu bat da...
5. **Botere harremanek eragina dute** eraiketa horretan. Pertsonak gizartearen botere-hierarkian duten tokia islatu egiten da gizarteak sexualitateari buruz duen ikusmoldean (baliabideak eskuratzeko aukera, gizarte-prestigioa, ikasketak egiteko aukera, osasun zerbitzuak izateko aukera...).
6. **Ez da** garrantzi txikiko **gai pribatua**, intimitatean gertatu arren.
7. **Gure gorputzak eta gure desioak arautzeko erabaki arbitrarioak hartzen dira**, sexualitateari buruzko ikuspegi jakinetan oinarrituta: esate batera, frankismo garaiko Arriskugarritasun Sozialaren Legea edo Iranen indarrean den homosexualentzako heriotza zigorra erabaki arbitrarioak dira, eta horien oinarria berdintasunik eza eta giza eskubideen urratzea dira.

2. Heteronormatibotasuna: heterosexualitatea, sexualitate aproposa neoliberalismoaren mesederako

Gure gizarteetako sexualitatea heteronormatibotasunak arautzen du. Hitz horrek gure kulturako sexualitatea normaldu, erregulatu eta arautzen duten botere harremanen multzoa izendatzen du. Halatan, harreman heterosexual idealizatuak instituzionalizatu egiten dira, eta horretan oinarritzen da sistema hoberen funtzionarazten duen eredu sexuala.

Alde horretatik, **heteronormatibotasunak homosexualitatearen aurkako aurrejuzgua berekin ekartzeaz gainera**, presio egiten duten eta **sexualitate idealizatu bat eraikitzeko balio duten gizarte arau multzoaz elikatzen da**. Eta hor sartzen dira sexu orientazioari dagozkion arloak, baita **arraza, klase, genero eta sexu praktikei** dagozkienak ere.

Heteronormatibotasuna genero-zapalkuntza deritzon horretatik harago doa, bestelako zapalkuntzekin zerikusia bai baitu: hala nola, arrazakeriarekin, klasismoarekin, arauz kanpoko sexu praktikekin (somasokismoa, prostituzioa, bikote aldaketa sarriak, jendaurreko sexu jardunak, eta abar) eta arauz kanpoko gorputzen gaitzespenarekin.

Heteronormatibotasunak esan nahi du, sistemak arlo legal, ekonomiko, politiko, sozial edota ideologikoan **funtzionatuko badu, pertsona guztiok heterosexualak izan behar dugula**, ezkondu egin behar dugula, sexualitatearen helburutzat seme-alabak edukitzea izan behar dugula, sexualitatearen plazeretan baino sexualitatearen arriskuetan pentsatu behar dugula, ez dugula jaiotzean izendatu edo esleitu zaigun generoaz zalantzarik izan behar eta sinetsi behar dugula gure gorputzak ez direla geureak, legeenak baizik, horiek zehazten baitute zer sexualitate mota diren egokiak.

Sistema neoliberala erosoago bizi da familia heterosexualekin, guraso bakarrek nahiz guraso homosexualeko familiekin baino; erosoago dago immigrante heterosexualekin, asilo eske datozen immigrante LGBTI²ekin baino; erosoago umetxoak paseatzen dituzten emakumeekin, kalean dabiltzan txaperoekin baino. Sistema honek sinestarazi nahi digu homosexualitatea, gehien bat, mendebaleko gizon zuri, gazte, aberats eta elbarritasunik gabekoen afera dela.

Heteronormatibotasuna kontzeptuak ez du agertu nahi praktika homosexualak dituzten pertsonak jasaten duten bazterketa. **Heterosexismoa** da hori, alegia, pertsona guztiak heterosexualek direla eta heterosexualitatea beste edozein sexu aukera baino hobea dela onartzea. Heterosexismoa heterosexual ez den oro estigmatizatzea, iraintzea edo ukatzea ere bada, eta horrela justifikatzen dira heterosexualitate normalizatuarekin bat ez datozenenganako tratu txarrak, bereizkeria eta abusua. Horren ondorioz, pertsona horietako askok berenganatu egiten dute heterosexismo hori eta euren nortasuna ukatzera hel daitezke.

Erakunde bat heteronormatiboa dela esateak adierazi nahi du erakunde horrek onartzen dituen arauetan –agerikoak nahiz ezkutukoak– bereizi egiten dela zein jotzen diren normaltzat gizonezkoentzat eta zein emakumezkoentzat. Sistema horretara makurtzen ez direnak edo sistema gaitzesten dutenak isilarazi egiten dira edo ikusezin bihurtzen. Erakunde heteronormatiboek ukatu egiten diete pertsona horiei gainerako herritarren baldintza beretan parte hartzea lege arloan, politikan, ekonomian, hezkuntzan eta abarretan. Diru sarrerak bermatzeko errenta (DBE), esate baterako, lehenago jasoko du seme-alabak dituen emakume batek, bakarrik bizi den emakume batek baino; lehenago finantzatuko da familia bat mantentzeko egin beharreko ahaleginari eta lanari buruzko ikerketa bat, transfeminismoari buruzko kongresu bat baino.

Heteronormatibotasunaren oinarri ideologiko sendoenetako bat bitartasuna da.

3. Bitartasuna

Bitartasuna (*binarismo* ere esan ohi zaio) pertsonak bi kategoria –**femeninoa/ maskulinoa; gizonezkoa/emakumezkoa**– desberdin eta osagarritara mugatzean datza.

Gure genero-sistema, sexista izatez gainera, **bitarra da**, eta hori **hiru alderditan**³ mamitzen da:

- 1. SEXUAN** (sexuak gure ezaugarri biologikoekin du zerikusia, eta horiek kulturaren bitartez hartzen dute zentzu bete). **XX baldin bazara**, sexu **femeninoa** izendatu edo esleituko zaizu; **XY baldin bazara**, **maskulinoa**.
- 2. GENEROAN** (generoak gure nortasunarekin eta jokabideekin du zerikusia): genero maskulinokoak **gizon izateko** prestatzen du gizarteak, eta genero femeninokoak, **emakume izateko**.
- 3. DESIOAN** (desioak erakartzen gaituenarekin du zerikusia): dena ongi lotuta geratzeko, jakintzat jotzen da **emakumeei gizonezkoak gertatu behar zaizkiela erakargarri, eta alderantziz**. Sexu betetasuna femeninoa eta maskulinoa uztartuz lortzen dela uste da.

Genero-sistema honen aginduek –bitartasunaren eta arauen menpekoak– **jende asko baztertzen dute**. Hiru dira bazterturik geratzen diren pertsona multzoak:

³Lesbianak, Gayak, Transexualak, Bisexualak eta Intersexualak.

- a) **Intersex** diren pertsonak
- b) **Trans** diren pertsonak (transgeneroak, transexualak eta trabestiak).
- c) Genero bereko jendeak erakartzen dituenen multzoa: **gay eta lesbianak**.

Heteronormatibotasunarekin eta **sexismoarekin uztarturik, bitartasunak** honakoak sinetsarazten dizkigu:

A) Sexua eta generoa guztiz bat datozela: hau da, sexua (naturak emanikoa) eta generoa (kulturak emanikoa) guztiz lotuta daudela;

- Jaiotzean gorputz femeninoa badugu, emakumezko bilakatuko gara.
- Jaiotzean gorputz maskulinoa badugu, gizezko bilakatuko gara.

Intersex diren pertsonak (hermafrodita izena eman izan zaie) egoteak berak argi planteatzen dio gizarteari gauzak ez direla hain sinpleak sexua eraikitzerakoan. **Pertsona askoren genitaltasuna ez da femininotzat edo maskulinotzat zorrotz jotzeko bezain argia.** Gure mendebaldeko gizartean (ez, ordea, beste batzuetan), ez dago ezta izenik pertsonok jaiotzez ditugun sexu anitzak izendatzeko, irizpide bitarrak baitira nagusi. Izenik ere ez dutenez eta “sexu-egoera zehazgabeak” onartzen ez direnez, anormaltasun edo anomalia genetikotzat jotzen dira, eta intersex pertsonen (kasu horretan, horien aita-amei) eskaintzen zaien bide bakarra da jaio eta berehala ebakuntza egitea (naturaren akatsak zuzentzeko); esan beharra dago aukera bakar hori eskaintzeko irizpideak ideologikoak direla medikuak bainoago, baita oso etika eskasekoak ere.

³ Ikusi COLL-PLANAS, Gerard; VIDAL, María: *Dibujando el género*. Argitaratzailea, Egales. Madril 2013.

B) ekografietan edo erditzean egin ohi den sexuaren arabeko genero-esleipena munduko gauzarik logikoena eta naturalena dela;

TRANS diren pertsonak (transexualak, transgeneroak eta trabestiak) egunero erakusten dute independenteak direla jaiotzez ditugun ezagugarri biologikoak eta generoa. Pertsona horiek garbi azaltzen digute ezen, ekografietan edota jaiotzean genero jakin bat izendatu edo esleitu arren, jendeak bestelako iritzi bat gara dezakeela, eta izendatu zaion generoaren kontrakoan irudika dezakeela bere burua, edota ofizialak diren genero horietako bat bere ere ez aukeratu. **Egiaztatu egin dute badirela bagina duten gizonezkoak, baita zakila duen emakumeak ere.** Argi erakutsi digute **generoa ez dela gorputzak dituen ezaugarrien arabera edo izendapen goiztiar baten mende bizitzen**; pertsonak bi genero kategoria (gizonezkoa/emakumezkoa) baino askotaz konplexuagoak garela eta aniztasun handiagoa dugula. Aukeratzeko esparrua badugula, generoan definitzeko aukerak ugariak baitira.

C) maitasun erromantikoaren mitoa, baita pertsonen sexu-betetasuna gizonaren eta emakumearen osagarritasunean datzala ere

Azken hamarkadetan gure gizarteak izandako lege eta gizarte aurrerapenei esker, mitoa zalantzan jartzea lortu dugu baita, neurri batean behintzat, desagitea ere. Hala ere, **luzea da oraindik ibili beharreko bidea,** ezin esan baitugu heterosexismoa baztertua izan denik. Jende askok izugarri sufritzen du oraindik desio homoerotikoak dituela konturatzen denean; guraso askok sekulako astindua hartzen dute seme-alaba nerabea homosexuala edo lesbiana dela jakitean. Bestalde, komunikabideetan, nekez ikusten ditugu heterosexistak ez diren mezuak. Oraino ere, ez da zaila entzutea “nork egiten du gizonarena eta nork emakumearena?” galdera, heterosexuala ez den bikote baten aurrean. Bizirik dago gay eta lesbiana askok maitasuna jendaurrean agertzeari dioten beldurra.

Aurrerapen handiak gertatu diren arren, beti ere **estigma jartzen zaie, estereotipatu egiten dira heterosexualak ez diren pertsonak.** Egoerak oso desberdinak gertatzen dira munduan zehar; leku batzuetan, homosexualek eskubide guztiak dituzte, sexu joera gorabehera, eta beste batzuetan, berriz, heriotza zigorrera kondenatzen dituzte edo era guztietako bortxakeriak jasan behar izaten dituzte.

Heterosexualak ez diren pertsonak erakutsi digute ez dela “laranja erdirik”, eta sexu-betetasun erabatekoa lortzeko bidea ez dela soilik heterosexualitatea. Agerian jarri dute eurek ere maitasuna egiten dutela, elkar maite dutela, ezkondu egiten direla, baita dibortziatu ere; alegia, beste edozein norbanakok bizi dituen gauza on eta txarrak bizitzen dituztela. Heterosexualak ez diren pertsonen kontrako **fobiak** genero-desberdinkeriekin zerikusia duen egitura baten parte dira.

Sexismoak bizirik dirauen artean, sexu aniztasunarekiko gorroto eta fobiek (homofobiek) bizirik iraungo dute.

JARDUERAK

1. Jarduera. Zer da gizon izatea edo emakume izatea?

1. Helburuak

1. Gorputzen eta haiek bizi dituzten generoen inguruko hausnarketa egitea.
2. Jaiotzen garenean gizarteak esleitzen dizkigun generoen inguruko hausnarketa egitea.

2. Garapena

- 2.1. Talde handian, I. fitxan ageri diren argazkiak horman proiektatuko dira, edo saioan parte hartzen duten pertsonen fitxa horren kopia banatuko zaizkie. II. fitxa banatuko da.
- 2.2. Hasteko, argazkiak talde txikitan aztertuko dira (hiru edo lau pertsonako taldeetan). Eztabaida pizteko galdera hauek erabiliko dira:

1. Gure biologia al da gizon ala emakume garen definitzen duena?
2. Haurdunaldia emakumeen kontua baino ez da?
3. Zergatik zara gizonezkoa? Zergatik zara emakumezkoa?

- 2.3. Talde handian ere, hiru galdera horien inguruan eztabaidatu eta hausnartuko da.



- 2.4. Bukatutakoan, planteatutako ideia nagusiak laburbildu eta banatuko dira.


3. Jardueraren iraupena

Gutxienez, ordubete.

4. Beharrezko materiala

- I. Fitxa. Argazkiak (20. or.): proiektatzeko moduko artxibo batean edo paperean (proiektatzeko aukerarik ez balego).
- II.Fitxa. 1. eta 2. jarduerekin erabiltzeko hausnarketa- eta eztabaida-lerroak (21. or.): fotokopiak.
- Kanoia, ordenagailua.

I. fitxa: Argazkiak



*



*<http://www.dogguie.net/wp-content/uploads/2008/09/thomas-beatie/thomas-beatie-embarazado-01>

II. fitxa: 1. eta 2. jarduerekin erabiltzeko hausnarketa- eta eztabaida-lerroak

1. hausnarketa

Pertsona bat jaiotzen denean sexuaren eta generoaren artean ezartzen den lotura ez litzateke existitu behar, ez baita gure gorputzen gainean harturiko beste erabaki arbitrario bat baino. Aipatu dugun moduan, sexuak gure kulturaren bitartez hartzen du esanahia: gorputz bat femeniinoa izango da kulturalki hala kontsideratzen dugun neurrian, eta berdin gorputz maskulinoekin. Gaur egun egiten dugun korrespondentzia (bi genero/bi sexu) ez da beti horrela egin izan. Historialari batzuek diotenez –besteak beste Lacqueurrek⁴, Erdi Aroan bi genero (gizona/emakumea) eta sexu bat (maskulinoa) zeuden gure gizartean. Esate baterako, medikuek emakume baten gorputza ikusten zutenean, sexu maskulinoa ikusten zuten (baina barrurantz sartua). Izan ere, emakumezko genitalen inguruko hausnarketa kontu moderno da; bagina, alua, ezpain handiak eta txikiak, obulutegiak, klitoria eta abar guretzat nahiko termino berriak dira, eta Erdi Aroan ezezagunak ziren.

2. hausnarketa

“Mutila da!” “Neska da!” Horixe da gure lehenengo aurkezpena mundura gatozenez. Aukeratzan ez den zerbait da. Genero bat esleitzen zaigu gure genitalen arabera, eta aurrera! Emakume edo gizon izateari ekiten diogu. Genero-teoriek, oro har, ez dute zalantzan jarri esleipena egiteko modu hori edo sexuaren eta generoaren artean ezartzen dugun erabateko lotura. Askotan aipatzen eta salatzen dira gizonen eta emakumeen artean dauden botere-egiturak, hierarkian eta berdintasunik ezan oinarritzen diren botere-egitura horiek, baina inor gutxik aztertu du ea gizonak eta emakumeak definitzen dituzten kanpoko genital horiek nahikoa diren emakume edo gizon horiek ezagutzeko eta definitzeko. Onartu dugu sexua dela generoa determinatzen duen gauza natural hori, eta film honetako benetako tipo gaiztoa sexismoa dela, horrek eragiten duelako emakumeen eta gizonen arteko desberdinkeria. Desegin dugu gizonen eta emakumeen naturak hala aginduta desberdin jokatzeko dutela esaten zuen diskurtsoa. Alabaina, generoan gelditu gara, edo, zehatzago esateko, bi genero bakarrik dauden ideian, onartuz genero bi horiek naturak sortzen dituen sexu biologikoetan oinarritzen direla, eta horiek benetakoak eta ukaezinak direla. Sexua ere, edo sexuaren gaur egungo adiera, zalantzan jarri beharra dago.

3. hausnarketa

Gure gizarteak ez du ulertzen generoz aldatu nahi izateko edo generorik ez izateko desira. Ondorioz, Trans pertsonak genero-disforia edo buruko gaitz bat duten pertsona gisa tratatzen dira. Gure gizarteak diskurtso mediku-patologikoa aplikatzen du (esate baterako, esaten denean pertsona transexualek operatu egin nahi dutela eta haiena ez den gorputz batean harrapatuta daudela), eta Trans pertsonak sistemaren anomalia bihurtzen ditu; anomalia horiei eskaintzen zaien salbaziorako bidea generoa berriro esleitzea da (hormonak hartzea eta genitalak operatzea), haien gorputzak egoki daitezkeen barruan duten gizonera edo emakumera. Hala, Trans pertsona askorentzat, generoa berriro esleitzea, aukera aske bat izan ordez, agindu bilakatzen da.

⁴LACQUEUR, Thomas: *La construcción del sexo*. Argitaratzailea, Cátedra, Madril 1994.

2. jarduera. Nor da nor?

1. Helburua

1. Heteronormatibotasunak eta bitartasunak generoak ulertzeko dugun moduari nola eragiten dioten aztertzea.

2. Garapena

- 2.1. Talde handian, III. fitxan ageri diren argazkiak horman proiektatuko dira edo saioan parte hartzen duten pertsonen fitxa horren kopia banatuko zaizkie. II. fitxa ere banatuko da.
- 2.2. Hasteko, argazkiak talde txikitan aztertuko dira (hiru edo lau pertsonako taldeetan). Eztabaida pizteko galdera hauek erabiliko dira:

1. Heteronormatibotasunaren eta bitartasunaren diskurtsoa oinarri hartuta, zein bi pertsona daude soberan? Zergatik?

2. Generoaren eta sexu-aniztasunaren diskurtsoa abiapuntu hartuta, falta al da beste definizoren bat hartuko lukeen pertsonarik? Nor dira? Zergatik?

- 2.3. Talde handian ere, hiru galdera horien inguruan eztabaidatu eta hausnartuko da.
- 2.4. Bukatutakoan, planteatutako ideia nagusiak laburbildu eta banatuko dira.

3. Jardueraren iraupena


Gutxienez, ordu bate

4. Beharrezko materiala

- II. Fitxa. 1. eta 2. jarduerekin erabiltzeko hausnarketa- eta eztabaida-lerroak (21. or.): fotokopiak.
- III. Fitxa. Giza gorputzen marrazkiak (23. or.): proiektatzeko moduko artxibo batean edo paperean (proiektatzeko aukerarik ez balego).
- Kanoia, ordenagailua

III. fitxa: giza gorputzen irudiak**


Lau pertsona hauek argazki-oinean esaten den eran definitzen dira.




Gizona naiz



Emakumea naiz



Emakumea naiz



Gizona naiz

**Badakigu irudietan ageri diren gorputz guztiak mendebaldeko pertsona zuriei dagozkiena eta beste irudikapen asko falta direla. Irudi hauek jarduera zehatz honen helburua betetzeko aukeratu dira; beraz, marrazkiak egokiak dira jarduera honetarako, baina ez gorputz moten aniztasuna edota beste alderdi batzuk lantzeko.

3. jarduera. Zer da genero-ikuspegia?

1. Helburuak

1. Genero normatiboaren eta hark eragiten dituen bazterketen gaineko hausnarketa egitea.
2. Gure proiektuetan erabiltzen dugun genero-ikuspegia hobeto ezaketen elementuak aztertzea.

2. Garapena

- 2.1. Lan-saioan parte hartzen duten pertsonen IV. eta V. fitxak banatuko zaizkie eta lantaldeak antolatuko dira (hiru edo lau pertsona taldeko).
- 2.2. Parte-hartzaileek definizioei buruzko IV. fitxa irakurriko dute eta definizio horien hasierako azterketa egingo dute. Galdera hauek erabiliko dira eztabaida eta hausnarketa irekia pizteko:

1. Testuan deskribatzen diren generoari buruzko ekarpenek aipatzen al dituzte genero-sistemaren heteronormatibotasuna eta bitartasuna?
2. Gure genero-ikuspegiaren heteronormatibotasunaren eta bitartasunaren azterketa sartzen baditugu, zer aldatuko litzateke kolektibo-hartzaileei dagokionez? Eta generoa bitartasun ulertzeko, ikusteko, sentitzeko, eta pentsatzeko modu gisa ulertzeari dagokionez?
3. Homofobiaren eta sexismoaren arteko lotura estua al da? Zer eragin du horrek genero-ikuspegiari?

- 2.3. Talde handian, hiru galdera horien inguruan eztabaidatu eta hausnartuko da.
- 2.4. Bukatutakoan, planteatutako ideia nagusiak laburbildu eta banatuko dira.

3. Kontuan hartu beharrekoak

- Jarduera hau egiteko, HEGOA⁵ elkarteak argitaraturiko *Diccionario de Educación para el Desarrollo* izenekoan ageri den genero hitzaren definizioaren zati bat erabiliko da. Egokiena izango litzateke elkarte bakoitzak, jarduera egiteko, generoa, genero-ikuspegia edo genero-perspektiba hitzei ematen dien definizioa erabiltzea.

⁵MORALES, Ana Isabel: "Género" hitzaren definizioa obra honetan: Gema Celorio eta Alicia López de Munain (koord.): *Diccionario de Educación para el Desarrollo*. HEGOA. Bilbo 2007. 199.-222. or.

4. Jardueraren iraupena

2 horas

5. Beharrezko materiala

- IV. fitxa. Definizioak (25.-26. or.): fotokopiak.
- V. fitxa. 3. jarduerarekin erabiltzeko hausnarketa- eta eztabaida-lerroak (26. or.): fotokopiak.

IV. fitxa: definizioak

Diccionario de Educación para el Desarrollo⁶ lanak honako ekarpen hauek egiten dizkio genero kontzeptuari:

“**Genero terminoa**, feministek gauzatutako antropologia-ikasketetatik datorren ekarpena da. Testuinguru sozial, politiko eta kultural batean, emakume edo gizon jaiotzearen ondorioz esleitzen zaizkigun funtzio eta rolei egiten die erreferentzia. Ikuspegi horretatik, gizarteak edo kulturak definitzen dituen jokabideak dira rolak. eta pertsona bakoitzak, lortu duen edo eman zaion estatus sozialaren arabera, jokabide jakin bati jarraitu beharko dio.”

“**Genero-ikuspegia** kontzeptuari esker, sexuaren eta generoaren arteko bereizketa egin dezakegu: lehenak, gizonen eta emakumeen ezaugarri eta ezberdintasun biologikoei egiten die erreferentzia; bigarrenak, berriz, ezberdintasun biologiko horiek aitzakia hartuta eraiki diren irudi sozial eta kulturei egiten die erreferentzia. Sexua amaren sabelean gaudenean markatzen da; generoa, bestalde, gizona eta emakumea bizi direneko ingurunean barneratzen dira, pertsona bakoitzari sexuaren arabera nola jokatu behar dugun esaten baitzaigu. Genero-ikuspegiak, gizonen eta emakumeen arteko berdintasunik ezaz jabetzeko tresna baliagarria izateaz gain, belaunaldiz belaunaldi transmititzen diren eta emakumeak mendeko izatera behartzen dituzten estereotipoak, rolak, ohiturak eta jokabideak aldatzeko tresna ere bada.”

“**Kolektibo hartzaileak**. Uka ezin dezakegun errealitate bat da Garapenerako Hezkuntzan lan egiten duten pertsona gehienak emakumezkoak direla, eta gauza bera gertatzen dela “genero” edukiak dituzten jarduerekin: gutxi dira mota horretako jardueretan parte hartzen duten gizonak. Horrek erronka handia sortzen die elkarteei: errealitate horien inguruan eztabaidatzeko espazioak sortu behar dituzte, bertan generoaren auziaren garrantziaz jabetzen lagunduko dituzten edukiak transmititu ahal izateko.”


⁶Op. Cit.

“**Generoari buruz hitz egiten dugunean** ikusteko, sentitzeko, entzuteko, bizitza ulertzeko eta pentsatzeko modu jakin bati buruz ari gara; izan ere, generoaz hitz egitea gizonen eta emakumeen hitz egitea baino gehiago da. Generoa, substantibo bat baino gehiago, aditz bat izan beharko litzateke, pertsona guztiei eragiten dielako: gizonak, emakumeak, mutilak, neskek eta pertsona nagusiak. Pertsona horiek haien artean hartu-eman batzuk izaten dituzte, eta haien eguneroko bizitzan zenbait balio eta jarrera onartu behar dituzte elkarrekin bizitzea posible izan dadin, gizarteko kide guztiak pertsonak direla aitortuz eta gure autonomia, eskubideak eta aukera-berdintasuna errespetatuz. Horrela lortuko baitugu, azken batean, ezberdintasunak errespetatzen dituen bidezko gizarte batean bizitzea”.

V. fitxa: 3. jarduerarekin erabiltzeko hausnarketa- eta eztabaida-lerroak

Hiru dimentsioko genero-sistemaren (sexua, generoa eta desira) eta horrek eragiten dituen bazterketen inguruko hausnarketa:

- 1_ Sexista da; horregatik, araututako genero-rolak bete nahi ez dituzten gizonak eta emakumeak baztertzen ditu, besteak beste:** emakumeak mendeko bihurtzen dituzten botere-harreman patriarkalen kontra egiten duten gizonak eta emakumeak. Lana sexuaren arabera banatu nahi ez duten emakumeak eta gizonak. Beren gorputzen autonomia berreskuratu nahi duten eta emakumeen kontrako indarkeria desagerrarazi nahi duten emakumeak. Gizartean irizpide sexisten arabera jokatu nahi ez duten gizonak eta emakumeak.
- 2_ Heteronormatiboa eta homofoboa da; horregatik, heterosexuak ez diren eta heterosexueltasunaren arauak betetzen ez dituzten pertsonak baztertzen ditu:** gayak, lesbianak, bisexualak, sadomasokistak, sexurako bikotekidea sarri aldatzen duten pertsonak, sexu-harremanak taldean edo toki publikoetan edukitzen dituzten pertsonak, sexua izateagatik ordaintzen duten pertsonak, marikoak, bollerak, etab.
- 3_ Bitarra da; horregatik, haien jokabidearen, jarreraren eta itxuraren bitartez bi sexu/bi genero daudela eta haien artean lotura zuzena dagoela zalantzan jartzen duten pertsonak baztertzen ditu:** emakume transexualak, gizon transexualak, bagina eta umetokia dituzten gizonak, zakila duten emakumeak, pertsona transgeneroak edo genero zehatzik nahi ez duten pertsonak, trabestiak, intersex pertsonak, etab.



3

Subjektuak

SARRERA

Genero-ikuspegia dagoeneko integratu da Garapenerako Lankidetzaren (GL) eta Hiritartasun Globalerako Hezkuntzaren (HGH) arloetan, eta oraindik ere erronka asko gainditu gabe dagoen arren, zenbait azterketa eta ekintza lerro aztertu eta martxan jarri dira, emakumeek eta gizonak garapenaren inguruko politiketan eta estrategietan zer rol betetzen duten kontuan hartuta.

Azken urteotan, elkarre batzuek ikuspuntu feministetatik abiatuz imajinatu dituzte erronkak, eta erronka horiek elkarrearen GL eta HGH proiektuen barruan zehaztu dituzte.

NAHIA taldearentzat, hala **genero-ikuspegia** nola **feminismoa** iturri garrantzitsuak dira, eta bi korrante horiekin identifikatuta sentitzen gara. Era berean, uste dugu orain arte ez dela, ez dugula, behar besteko hausnarketarik egin GL eta HGH arloan gurekin elkarlanean dabilen subjektuen gainean.

GL eta HGH arloetako lana planteatzen denean, jardun horretan inplikaturik dauden pertsonak, erakundeak eta entitateak **subjektu politikoak** izan daitezke, ala ez. Hala, atal honetan, **subjektuak** identifikatzeko eta haiekin lan egiteko tresnak aurkezten ditugu, subjektu politiko diren ala ez kontuan hartu gabe. Beste kontu bat da guk eta beste hainbat elkartet subjektu politikoak⁷ sortzeko edota sendotzeko prozesuak babesteko dugun nahia.

⁷Nahiz eta aurkezten ditugun tresnek subjektuen analisiari erreferentzia egiten dioten, subjektu horiek politikoa izan ala ez, garrantzitsua iruditzen zaigu argi uztea NAHIAko kideok **botere-harremanak** eraldatuko dituzten subjektu politikoak eraikitzea helburu duten GL eta HGH estrategiak erabiltzeko dugun interesa, baita konpromisoa ere. Horretarako, zera behar dugu:

- **sistemak** gutako bakoitzari esleitzen dion funtzioa eta rola **kritikoki ulertu eta aztertze**ko prozesuak. Prozesu hauek barrura begira eta bakarka egitekoak dira, eta helburua da horien bitartez konturatzeko zapalkuntza egoera batzuetan taldeak rol garrantzitsua duela: “kontzientzia hartzearen” prozesua da. Era berean, guztiok ez ditugu zapalkuntza mota berdinak jasaten, eta zapalkuntza horien eragina ez da beti berdina;
- **“aldatzeko borondatea**, gure bizitzako eta gure errealtateko protagonista bihurtzeko;
- errealtate **horri interpretazio eta esanahi** berri bat emateko gaitasuna;
- **proiektu** bat formulatzea;
- eta **ekintza soziala** errealtate hori **eraldatu** ahal izateko”.

Poza, maitasuna eta **zaintza** ezinbestekoak dira eraldaketa hori gauzatzeko. Ekitera eramaten gaituzten egoerak egoera deserosoak izan ohi dira, baita harremanekin eta ongizatearekin zerikusia duten egoerak ere — identitatea indartu eta boterea ematen baitute—, taldeko eraikuntza ahaztu gabe.

(Lan hauetan oinarritu gara:

- RAUBER, , Isabel: *América Latina. Sujetos políticos. Rumbos estratégicos y tareas actuales de los movimientos sociales y políticos*. Argitaratzailea, Pasado y presente XXI. Santo Domingo 2006, 109.-132. or.;
- DEL RIO, Amaia; DEMA, Sandra (hizlariak): “Construcción de sujeto político (Grupo 1)” [Itziar Gandarias, dinamizatzailea], in *IV Congreso de Educación para el Desarrollo. Cambiar la Educación para cambiar el mundo... ¡Por una acción educativa emancipadora!*, HEGOA. Vitoria-Gasteiz 2014ko azaroak 9-11.;
- CABALLERO, Itziar (hizlaria): “Construcción de sujeto político (2. taldea)” [Marlucy Alves Paraíso eta Jaume Martínez Bonafé, dinamizatzaileak], in *IV Congreso de Educación para el Desarrollo. Cambiar la Educación para cambiar el mundo... ¡Por una acción educativa emancipadora!*, HEGOA. Vitoria-Gasteiz 2014ko azaroak 9-11).

Aurrera eramaten diren proiektuetan, gizon-emakume sistema bitarra onartutzat jotzeko arriskua dago, eta, ondorioz, eredu heterosexual nagusia edo **heteronormatibotasuna** erreproduzitu genitzake. Gaur egun, oraindik ere indarrean dago honako ideia hau: gure desirei, maitatzeko erari, besteekin harremanetan egoteko moduei, gozatzeko erei... buruz hitz egitea arlo pribatuan egiten den zerbait da, eta ezin diegu gurekin lan egiten duten pertsoneri edo erakundeei horren gaineko ezer galdetu.

Generoari eta sexu-aniztasunari buruz hitz egiten dugunean, irudi lezake **LGTBI**¹ pertsonen bakarrik ari garela. Alabaina, herritarroi, gure eskubideei eta gure betebeharrei buruz ari gara; izan ere, **biztanle guztiongan** eragina duen gaia da.

Proiektu bat edo estrategia bat identifikatzeko orduan eta inplikaturta dauden subjektuak aztertzeke orduan, **generoaren eta sexu-aniztasunaren ikuspegia** kontuan hartuko bagenu, ziurrenik gurekin batera lan egin nahiko luketen aliatu gehiago **aurkituko** genituzke, eta **hobeto ezagutu ahalko genituzke** gurekin luzaroan elkarlanean aritu diren subjektuak.

Premiazkoa da **privatutasunaren tabua** apurtzea biritza betea izateko ezinbestekoak diren eta gizarteko kide guztiei eragiten dieten gai horien inguruan. Hala ere, badakigu **LGTBI**⁸ pertsonen egoerak **erronka larria** sortzen duela GL eta HGH arloetan lanean ari direnentzat; izan ere, subjektuen analisia egiteko orduan, tradizionalki, kolektibo horretako pertsonak ez dira kontuan hartu eta beti itzalean egon izan dira. Kontua da, giza eskubideen urraketak gertatzen direnean, edo bazterkeriari eta zaurgarritasun egoerei aurre egin behar diegunean, “generoa edo sexualitatea atzeko planoan gelditzen direla”⁹.

Berriro ere argi utzi nahi dugu NAHIAko kideok proposatzen dugun ikuspegia ez dagoela soilik LGTBI kideei zuzendua, gure ikuspegiak gizarteko pertsona guztiok hartzen gaitu kontuan. Hala ere, garrantzitsua iruditzen zaigu lehentasuna ematea mundu osoan zehar kolektibo horrek eta horien kide diren pertsonen sistematikoki jasaten dituzten giza eskubideen urraketak argitara ateratzeari. Egoera hau are larriagoa da zenbait herrialdetan, non pertsona horiek ezin duten haien sexualitatea edo genero-identitatea askatasunez bizi.

Pertsona horiek, hartu dituzten erabakiak direla eta, eredu menderatzailea urratzen dute eta zalantzan jartzen dute heteronormatibotasuna. “Ez dute genero batekin edo bestearekin identifikatu beharrik sentitzeko eta bizitzeko, (esaterako, pertsona transgeneroak); hormonak hartzen dituzten gizon eta emakume transexualak dira, hormonak hartzen ez dituzten eta operatu ez diren gizon eta emakume transexualak, gizon gayak, emakume lesbianak, gizon eta emakume bisexualak, etab.”¹⁰

⁸Lesbiana, Gay, Trans, Bisexual eta Intersex diren pertsonak.

⁹HERRERO, Eva; PLATERO, Raquel (Lucas); BERNÁ, David: “De maricas, Trans y Bollos en los CIE. Conversaciones a propósito del trato de las personas LGTB en los CIE” in Raquel (Lucas) Plateron (ed.): *Intersecciones: cuerpos y sexualidades en la encrucijada*. Argitaratzailea, Bellaterra. Bartzelona, 2012. 247. or.

¹⁰AA.VV.: *Los deseos olvidados. La perspectiva de género y de diversidad sexual en la Cooperación al Desarrollo, en la Educación para la Ciudadanía global y en la promoción y defensa de los DDHH de las personas migrantes y refugiadas*. Argitaratzailea, Nahia. Bilbo, 2013. 15. or.

Haien burua horrela ikusteak eta era horretan bitizteak zaugarritasun egoeran jartzen dituzte, eta, ondorioz, gogor egiteko eta borrokatzeko estrategiak garatu behar dituzte; estatuak eta agente para-estatalek, baita haien beraien komunitateko herritarrek eta erakundeek ere haien eskubideak urratzen dituztela salatzen dituzte beharra dute.

Horiek horrela, “bazterkeria historikoak eta estrukturalak konpentsatzea helburu duten politikak **berdintasunik eza** birsortzen ari direla, normalizatzen dituzten botere-hierarkien aurrean itsu daudelako; horren eraginez, bilatzen ez diren ondorio batzuk lortzen dira, hau da, bazterkeria egoera konkretuak gertatzen dira”. (...) “Normalean, ez politika publikoek eta ez gizarte mugimendu nagusiek ez dute kontuan hartzen herritarren bizimodua zein konplexua den; haien bizipenak sinplifikatu egiten dira, onartuta dauden eta ekintza edo mobilizazio publikoaren parte diren egiturazko berdintasunik ezaren inguruan”. (...) “Izan ere, politika publikoek ez diete arreta bera jartzen bazterkeria mota guztiei, eta politika horiek, ekiten dutenean, ez dituzte bazterkeria mota ezberdinak batera lantzen”.¹¹

Hori dela eta, pertsona horiei erantzuna emateko, GL eta HGH arloan lanean ari garenean egin behar ditugun galderak konplexuagoak izan behar direla sinetsita gaudelako, proposatzen duguna zera da, gurekin elkarlanean aritzen diren pertsonen eta erakundeen zuzentzen diegun begirada zabaltzea. Uste dugu beti dugula galdetzeko eskubidea, betiere emango dizkiguten erantzunak entzuteko eta egingo dizkiguten galderei erantzuteko prest bagaude. Errespetuz jokatu.

Subjektu garelako kontuan hartuz begiratzen badiegu ingurukoei eta geure buruei, **identitate anitzen bidegurutzetik**¹², konturatuko gara GL eta HGH arloetan erronka berriak agertuko direla, ordura arte ikusezin bihurtu, ahaztu eta baztertu ditugun subjektuak ere kontuan hartzen hasiko garelako.

Lankidetzaren zein Herritartasun Globalerako Hezkuntzaren arloko edozein proiektu identifikatzerako unean, berebiziko garrantzia du inplikaturiko subjektuen analisiak. Orokorrean, etengabe haien eskubideak nola urratzen dituzten ikusten duten normatibizatu gabeko kolektiboak —horixe da LGTBI kolektiboaren kasua— ez dira kontuan hartzen; hala, analisietatik eta, ondorioz, proiektuetatik at gelditu ohi dira.

Era berean, subjektuak aztertzen direnean, analisi horrek ez ditu aniztasun sexuala eta genero-identitatea kontuan hartzen.

¹¹PLATERO, Raquel (Lucas) (ed.): *Intersecciones: cuerpos y sexualidades en la encrucijada*. Bellaterra argitaratzailea. Bartzelona 2012. 45.- 47. or.

¹²“Bidegurutze edo interseksionalitate hori ez da gehiketa eta kenketa ariketa bat, baizik eta hainbat bazterkeria-faktoreen elkargunea, eta faktore horiek areagatu egiten dira gorputz, espazio eta irudikapen jakin batzuetan gertatzen direnean. Bazterkeria-faktore horiek subjektuaren eraikuntza gertatzen den bizitzako arlo guztietan ageri dira eta hainbat eratan azaleratzen dira, besteak beste: arrazakeria, sexismoa, xenofobia, lesbofobia, transfobia, gaitasun fisikoen, intelektuaren edo psikologikoen eraginez inposaturiko mugak, baita etorkina izateagatik, gizarte-klaaseagatik edo jatorri nazional edo etnikoagatik ezarritakoak ere”. BERNÁ, David: “Cartografías desde los Márgenes. Gitanos gays en el estado español” Raquel (Lucas) Plateroren (ed.) lanean: *Intersecciones: cuerpos y sexualidades en la encrucijada*. Argitaratzailea, Bellaterra. Bartzelona. 2012. 218. or.

Jarraian proposatzen ditugun tresnak kolektibo ez normatibizatuak ikusgarriago nola egin lantzeko pentsatuta daude, beste gauza batzuen artean. Tresna hauek ohiko proiektuen baitan erabil daitezke, edozein motatako proiektuak direlarik ere; berdin dio aniztasun sexuala haien erdigunea ez bada.

Tresnak hiru dira:

- 1. Subjektuen mapa: zer datorkizu burura?**
- 2. Vennen diagrama.**
- 3. Txingoka, itsu-itsuan.**

Posible da tresnak konbinatzea. Aurrerago azalduko dugu hori nola egin.

TRESNAK

1. tresna. Zer datorkizu burura?

1. Helburuak

1. Inplikaturik dauden taldeak, erakundeak eta subjektuak identifikatzea.
2. Teknika aplikatzen dutenek (tokian tokiko herritarrak, elkarte bateko kideak, ikas-tetxe bat...) inplikaturik dauden subjektuen aniztasun sexualari eta genero-identitateari buruz duten pertzepzioa zein den ezagutzea.
3. Subjektuak inguratzen dituzten zalantzak, ezagutza eza eta aniztasuna ikustaraztea

2. Garapena

- 2.1. Taldean, proiektuaren parte diren subjektuen eta kolektiboen zerrenda idatziko da (norberak berea pentsa dezake eta gero guztion artean eztabaidatu, edo zuzenean talde handian egin daiteke). Nahi izanez gero, LGTBI kolektiboa jar daiteke, orokorrean, edo pertsona horien eskubideen alde lan egiten duen elkarte ezagunen batena jarri. Izenak atera ahala, paperezko arbelean idatziko dira.
- 2.2. Posible bada, subjektuak kolektiboka sailkatuko dira. Dena paperezko arbel handi batean idatziko da.

2.3. Subjektuz subjektu, zera galdetuko diogu geure buruari: **zer ekartzen dizu burura** subjektu horrek?, **zure iritziz**, zer dira kolektibo horretako pertsonak? Galderi erantzuteko lau irudi daude. Irudiak eskuz marraztuak daude, pegatina zuri batean, trazu sinpleak erabiliz, eta III. fitxan ageri dira (x. orrialdean). Bosgarren aukera bat ere badago, zuriz utzi duguna, eta gainerako lau marrazkietan sailka ezin daitekeen guztia biltzen du. Profil bakoitzari marrazkia duen edota zuriz dagoen pegatina bat edo batzuk esleituko zai(zki)o.



“Zer datorkizu burura?” pegatinak

2.4. Galderi erantzunez eta profilak “identifikatuz” joan ahala, honako galdera hau planteatuko da: zer **perzeptzio** duzu kolektibo horri buruz?

2.5. Taldean, galdera horren inguruko hausnarketa egin, eta zer pegatina(k) jarri adostuko da.



2.6. Subjektu guztiak aztertu ondoren, zera galdetuko diogu geure buruari: zein dira **pertzepzio** horien **ondorioak**?

2.7. Landu beharreko genero-ikuspegiari eta aniztasun sexualari buruz agertzen diren zalantzak eta erronkak paperezko arbelean idatziko dira 2.3., 2.4., 2.5. eta 2.6. puntuak jorratu ahala.

3. Kontuan hartu beharrekoa

Pegatinak erabili ditugu eztabaida, harridura, hausnarketa, zalantzak etab. pizteko. Gure helburua ez da jendeari etiketak jartzea edo haien bizitza pribatuan muturra sartzea. Jarduera honen bitartez gure inguruan dauden aniztasuna eta ezjakintasuna, baita tabuak ere, argitara ekarri nahi ditugu.

Pegatinak erabili beharrean, aniztasuna islatzen duten irudiak ere erabil daitezke.

4. Jardueraren iraupena

Ordu bete.

5. Beharrezko materiala

Paperezko arbela

Koloretako errotuladore lodiak

Karrozari-zinta

Artaziak

“Zer datorkizu burura?” pegatinak

2. tresna. Vennen diagrama¹³

1. Helburuak

1. Inplikatura dauden taldeak, erakundeak eta subjektuak identifikatzea, eta haien arteko interakzioak eta elkarlana (harremana) zehaztea.
2. Teknika aplikatzen dutenek (tokian tokiko herritarrak, elkarre bateko kideak, ikastetxe bat...) inplikatura dauden subjektuei buruz duten pertzepzioaren eta subjektu horien eraginaren edo eskaintzen dieten laguntza errealaren inguruan hausnartzea.

Oharra: lehenago “Subjektuen mapa: zer datorkizu burura?” tresna erabili baldin bada, helburu nagusia bigarrena izango litzateke, eta ez legoke 2.2. urratsa egiteko beharrik.

2. Garapena

- 2.1. Vennen diagramak erakusten du zer nolako pertzepzioa dugun gure inguruaren antolaketari eta subjektuen arteko harremanei buruz, islatu egiten baitu erakundeek, elkarre, entitateek edo bestelako taldeek dituzten onurak eta betebeharrak nola hautematen diren baita horrek guztiak gure elkarrearen jardunarekin dituen loturak eta elkarrearen jardunean dituen ondorioak ere.
- 2.2. Proiektuaren parte diren subjektuen zerrenda idatziko dugu. Zerrenda luzea ateratzen bada, subjektuak kidetasunaren arabera sailkatuko ditugu. LGTBI kolektiboa, orokorrean, gehituko da zerrendara, edo pertsona horien eskubideen alde lan egiten duen elkarre ezagunen bat, bestela. Hasierako sailkapen bat egingo dugu, eta jasotako izenak bi taldetan (adibidez) sailkatuko, garrantziaren arabera: subjektu oso garrantzitsuak eta hain garrantzitsuak ez diren subjektuak.
- 2.3. Tamaina eta kolore desberdinetako paperezko edo kartoizko biribilak moztuko ditugu (edo tamaina eta kolore desberdinetako txarteletan marraztuko). Ez da komeni tamaina desberdin gehiegi egotea.



¹³CANARIAS, Esther; ESCOBÉS, Eduardo; ALTAMIRA, Fernando: *Manual de planificación estratégica. ¿Quiénes somos? ¿de dónde venimos? ¿a dónde vamos?* Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatokia. Bilbo 2010. 41.-42. or.

- 2.4. Subjektu bakoitzari biribil edo txartel bat esleituko zaio, eta txartel edo biribilaren tamainak subjektuak elkartearentzat duen GARRANTZIA islatuko du, eskaintzen dituen onurak, haren eragina, haren inplikazioa... edo aurretik jardueran parte hartzen duten pertsona guztien artean adostutako beste irizpideren bat kontuan hartuz.
- 2.5. Garrantzitsua da partaide guztiek ulertzea zehazki zer alderdiri jarri behar dioten arreta biribilaren tamaina desberdinak erabiltzerakoan; izan ere, hau ondo ulertzen ez bada, partaideek beste alderdi batzuei buruzko haien ideiak azalitzakete, eta horrek diagraman nahastea eragin lezake. Puntu honetan subjektuek zer rol duten aztertzen ari gara, eta ez guk zer rol izatea nahiko genukeen.
- 2.6. Paperezko arbela handi baten erdian gure elkartea edo erakundea jarriko dugu, eta haren inguruan zer subjektu jarri eztabaidatu eta adostuko dugu.
- 2.7. Subjektu bakoitza gure elkararekin/erakundearekin lotuko dugu lerro etengabe baten (harremana etengabea bada) edo lerro eten baten (harremanak puntuala bada) bitartez. Harremana aldebikoa bada, lerroaren alde banatan geziak jarriko ditugu; harremana aldebakarrekkoa bada, gezi bakarra jarriko dugu.



- 2.8. Agertuz doazen aipamenak eta hausnarketak bilduko ditugu, beste une batean erabiltzeko.
- 2.9. Hala, diagrama osatzeko, 4 alderdi islatuko dira:
- Biribilaren tamainak subjektuaren garrantzia adieraziko du.
 - Elkartetik zenbat eta hurbilago egon, estuagoa izango da bien arteko elkarlana, lotura edo harremana.
 - Bi biribil kontaktuan edo bata bestearen gainean jartzen badira, bien artean lotura eta kooperazio estua, elkarlana... dagoela adieraziko du horrek.
 - Lerro eten edo etengabeek harremanaren maiztasuna eta aldizkakotasuna adieraziko dute, eta muturretako geziek harreman hori zer norabidetan gertatze den eta aldebikoa edo aldebakarra den adieraziko dute.
- 2.10. Bi diagrama ere marraz daitezke gure elkartearen bi alderdi desberdin alderatzeko: diagrama batean gaur egun ditugun harremanak azter daitezke, eta, bestean, edukitzea gustatuko litzaizkigukeen harremanak, esate baterako. Bukatzeko, bi diagramak alderatuko dira-.
- 2.11. Subjektu eta kolektibo guztiak aztertu ondoren, LGTBI kolektiboari arreta berezia jarriko diogu, eta honako galderen inguruan eztabaidatuko:

1. Zer dakigu kolektibo horri buruz?
2. Gure ustez, zer rol du kolektibo horrek guk gauzatu nahi dugun proiektuari dagokionez?
3. Gure ustez, zer rol izan lezake proiektu honetan?
3. Guk esku hartuko dugun komunitateko edo errealitateko agente akitboa al da?
4. Zer interes du kolektibo horrek gure proiektuan?
5. Nolako eragina izan dezake kolektibo horrek proiektu honen helburuak lortzeko orduan?

- 2.12. Lan-saioa bukatutakoan, taldeko arduradunek paperezko arbelean idatzitakoa bilduko dute, garbira pasatuko, eta saioan atera den informazio guztia biltzen duen dokumentu bat idatziko dute.

3. Kontuan hartu beharreko zenbait alderdi:

- Oraingo eta etorkizuneko Vennen Diagramak alderatzea proposatzen duen jarduerarekin batera (2.10), etorkizuneko diagrama hori lortzeko beharrezkoak diren ekintzak identifikatzeko jarduera bat egiten daiteke. Ildo horretan, Txingoka, itsusuan jardueran (38.-40. or) ateratzen diren ondorioak erabilgarriak izan daitezke.
- Denboraren eta bilatzen diren helburuen arabera, tresna hau osatzeko 1. tresnako (“Subjektuen Mapa: zer datorkizu burura?”) 2.3-2.5 urratsak erabil daitezke, subjektu bakoitzari pegatinak jarri. 2.9 urratsera heltzean egin daiteke, edo baita urrats guztiak bukatzean ere.
- Garrantzitsua da gogoratzea tresna hau erabiltzen ari garela aipatutako kolektiboak, baita beste asko ere, Lankidetzako eta HGH arloko edozein proiektutan integratzeko. Helburua ez da kolektibo horiei soilik zuzenduriko proiektu bat gauzatzea.

4. Jardueraren iraupena

2 ordu

5. Beharrezko materialak

Paperezko arbela

Koloretako errotuladore lodiak

Kartoi mehea

Artaziak

Koloretako orriak

Karrozari-zinta

“Zer datorkizu burura?” pegatinak (ikusi 32. or.)

3. tresna. Txingoka, itsu-itsuan

1. Helburuak

1. Inplikatura dauden taldeak, erakundeak eta subjektuak identifikatzea.
2. Teknika aplikatzen dutenek identifikatu diren subjektuen indargune, ahulezia, mehatxu eta aukerei buruz dituzten pertzepzioak erkatzea eta horiei buruz gogoeta egitea.

Oharra: lehenago “Subjektuen mapa: zer datorkizu burura?” tresna erabili baldin bada, helburu nagusia bigarrena izango litzateke, eta ez legoke 2.1 eta 2.2. urratsak egiteko beharrik.

2. Garapena

- 2.1. Taldean, proiektuaren parte diren subjektuen eta kolektiboak identifikatuko dira. LGTBI kolektiboa, oro har, edo kolektibo horren eskubideen alde lan egiten duen elkarte ezagunen baten izena gehituko genuke. Paperezko arbelean idatziko dira.
- 2.2. Behin taldeak subjektuak eta kolektiboak adostu ondoren, horietako bakoitza paper batean idatziko da. Subjektu edo kolektibo bat baino ez paper bakoitzeko.
- 2.3. Paper bakoitzarekin bolatxo bat egin eta kutxa edo poltsa batean sartuko ditugu.
- 2.4. IAMA (edo AMIA) bat marraztuko dugu paperezko arbel handi batean, eta lurrean jarriko. IAMAk gurutzatzen diren bi ardatz ditu, bata bertikala eta bestea horizontala, hartara lau koadrante sortzen dira. Bata indarguneena izango da (I), beste bat aukerena (A), hirugarren bat ahuleziena (Ah) eta azkena mehatxuena (M).
- 2.5 Taldekideak IAMARI bizkarra emanda jarriko dira eta subjektu eta kolektiboak idatzita dituzten papertxoak botako dituzte paperezko arbelera. Txingoa bezala... baina ikusi gabe; txingoka, baina itsu-itsuan.



- 2.6. Paper bola guztiak bota ondoren, taldekideek banan-banan zabalduko dituzte.
- 2.7. Papertxo bat zabaltzerakoan, hori aukeratu duen pertsonak azaldu egingo du zergatik uste duen subjektu edo kolektibo hori diseinatzan ari den proiekturako indargunea, ahulezia, mehatxua edo aukera dela (paper bola erori den tokiaren arabera).
- 2.8 Subjektu edo kolektibo horiei buruzko ekarpenak paperezko arbela batean idatziko dira, eta proiektua diseinatzan eta lantzen lagunduko digute.
- 2.9. Subjektu eta kolektibo guztiak aztertu ondoren, LGTBI kolektiboari arreta berezia jarriko diogu, eta honako galderen inguruan eztabaidatuko:

1. Zer dakigu kolektibo horri buruz?
2. Gure ustez, zer rol du kolektibo horrek guk gauzatu nahi dugun proiektuari dagokionez?
3. Gure ustez, zer rol izan lezake proiektu honetan?
4. Guk esku hartuko dugun komunitateko edo errealitateko agente akitboa al da?
5. Zer interes du kolektibo horrek gure proiektuan?
6. Nolako eragina izan dezake kolektibo horrek proiektu honen helburuak lortzeko orduan?

- 2.10. Lan saioa amaitutakoan, arduradunek paperezko arbela jasoko dute, garbira pasatuko, eta jorrotutako informazioa guztia bilduko duen dokumentua sortuko dute.

3. Kontuan hartu beharreko zenbait alderdi:

- Txingoka, itsu-itsuan tresna lantzeko, identifikatutako subjektuetako batzuk aukera daitezke horien garrantziaren arabera, sexu-aniztasunarekin duten harremanaren arabera...
- IAMAKo lau galderak jorratu ordez, bi galdera zehatzago planteatu litezke, esaterako: indarguneak eta ahuleziak.
- Denboraren eta bilatzen diren helburuen arabera, tresna hau osatzeko 1. tresnako (“Subjektuen Mapa: zer datorkizu burura?”) 2.3-2.5 urratsak erabil daitezke, subjektu bakoitzari pegatinak jarri. 2.7 urratsera heltzean egin daiteke, edo baita urrats guztiak bukatzean ere.
- Garrantzitsua da gogoratzea tresna hau erabiltzen ari garela aipatutako kolektiboak, baita beste asko ere, Lankidetzako eta HGH arloko edozein proiektutan integratzeko, eta genero-ikuspegia eta aniztasun sexualeko aplikatzerakoan subjektu horiei buruz ditugun pertzepzioak aztertzeko. Helburua ez da kolektibo horiei soilik zuzenduriko proiektu bat gauzatzea.

4. Jardueraren iraupena

2 ordu

5. Beharrezko materialak

Paperezko arbela


Koloretako errotuladore lodiak

Karrozari-zinta

Kutxa edo poltsa

“Zer datorkizu burura?” pegatinak (ikusi 32. or.)

Artaziak



Bibliografia

- BERNÁ, David: “Cartografías desde los Márgenes. Gitanos gays en el estado español” in Raquel (Lucas) Platero (ed.): *Intersecciones: cuerpos y sexualidades en la encrucijada*. Argitaratzailea. Bellaterra. Bartzelona 2012.
- CABALLERO, Itziar (errelatorea): “Construcción de sujeto político (Grupo 2)” [Marlucy Alves Paraíso y Jaume Martínez Bonafé, dinamización], in *IV Congreso de Educación para el Desarrollo. Cambiar la Educación para cambiar el mundo... ¡Por una acción educativa emancipadora!* Hegoa. Vitoria-Gasteiz 2014ko urriaren 9-11.
http://www.congresoed.org/wp-content/uploads/2014/11/G2_LT1.pdf
- CANARIAS, Esther; ALTAMIRA, Fernando (INCYDE, Iniciativas de Cooperación y Desarrollo): “Dimensiones de la Educación para el Desarrollo y la Educación para la Ciudadanía Global”. Mimeo. Azken berrikusketa, 2012.
<http://iniciativasdecooperacionydesarrollo.files.wordpress.com/2012/10/las-dimensiones-de-la-ed-y-epcg2.pdf>
- CANARIAS, Esther; ESCOBÉS, Eduardo; ALTAMIRA, Fernando: *Manual de planificación estratégica. ¿Quiénes somos?, ¿de dónde venimos?, ¿a dónde vamos?* Bizkaiko Hirugarren Sektorearen Behatokia. Bilbo 2010. 41.- 42. or.
http://iniciativasdecooperacionydesarrollo.files.wordpress.com/2011/03/cast-3sgestion5_c.pdf
http://iniciativasdecooperacionydesarrollo.files.wordpress.com/2011/03/eusk-3sgestion5_e1.pdf
- COLL-PLANAS, Gerard; VIDAL, María: *Dibujando el género*. Egales argitaletxea. Madril 2013.
- DEL RIO, Amaia; DEMA, Sandra (relatoras): “Construcción de sujeto político (Grupo 1)” [Itziar Gandarias, dinamización], in *IV Congreso de Educación para el Desarrollo. Cambiar la Educación para cambiar el mundo... ¡Por una acción educativa emancipadora!* Hegoa. Vitoria-Gasteiz 2014ko urriaren 9-11.
http://www.congresoed.org/wp-content/uploads/2014/11/G1_LT1.pdf
- HERRERO, Eva; PLATERO, Raquel (Lucas); BERNÁ, David: “De maricas, Trans y Bollos en los CIE. Conversaciones a propósito del trato de las personas LGTB en los CIE” in Raquel (Lucas) Platero (ed.): *Intersecciones: cuerpos y sexualidades en la encrucijada*. Argitaratzailea, Bellaterra. Bartzelona 2012.

- LACQUEUR, Thomas: *La construcción del sexo*. Argitaratzailea, Cátedra. Madrid 1994.
- MARTÍN BERISTAIN, Carlos: *Manual sobre perspectiva psicosocial en la investigación de derechos humanos*. Hegoa. Bilbo 2010.
- MORALES, Ana Isabel: “Género” in Gema Celorio eta Alicia López de Munain (coords.): *Diccionario de Educación para el Desarrollo*. Argitaratzailea, Hegoa. Bilbo 2007. 199-222 orrialdeak.
- PLATERO, Raquel (Lucas) (ed.): *Intersecciones: cuerpos y sexualidades en la encrucijada*. Argitaratzailea, Bellaterra. Bartzelona 2012.
- RAUBER, Isabel: *América Latina. Sujetos políticos. Rumbos estratégicos y tareas actuales de los movimientos sociales y políticos*. Argitaratzailea, Pasado y presente XXI. Santo Domingo 2006, 109-132 orrialdeak;
http://www.congresoed.org/wp-content/uploads/2014/10/Texto_Rauber_Paginas_109-132.pdf
- TOMÁS, Sonia: “Dimensiones de la Educación para el Desarrollo con enfoque de género” in *Género en la Educación para el Desarrollo. Estrategias políticas y metodológicas*. ACSUR las Segovias eta Hegoa. Bilbo, 2009, 27-33 orrialdeak.
http://www.acsur.org/IMG/pdf/Manual_Genero_ED.pdf
http://pdf2.hegoa.efaber.net/entry/content/595/Manual_castellano.pdf
- ZENBAIT EGILE: *Los deseos olvidados. La perspectiva de género y de diversidad sexual en la Cooperación al Desarrollo, en la Educación para la Ciudadanía global y en la promoción y defensa de los DDHH de las personas migrantes y refugiadas*. Argitaratzailea, NAHIA. Bilbo, 2013
<http://www.aldarte.org/cas/site/propuestas-ver.asp?id=22>
http://cear.es/wp-content/uploads/2013/11/NAHIA-Los-Deseos-Olvidados_-Castellano.pdf
<http://iniciativasdecooperacionydesarrollo.wordpress.com/2013/10/07/de-identidades-e-diversidades-sexuales-y-de-genero/>